



# 2DEO - EUSKARAZKO IKUS- ENTZUNEZKOEN LABORATEGIA LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRIAK

## I. AURKEZPENA

2DEO sorkuntzara zuzendutako laborategia da; eta, ondorioz, bere helburua industria eta teknologiaren sektoreak bultzatzea da, ideia berrien haztegi eta horien erakusleihu gisa lan eginez.

2DEO ikus-entzunezkoen laborategi berriak honako lan-ildo hauek lantzen ditu: nazioarteko enprekin kooperazioa sustatzea edukien identifikazio- eta esperimentazio-prozesuetan, eta ikus-entzunezkoen sektoreak esperimentazioa eta prototipoak sustatzea.

Tabakalerak sorkuntza-zentro gisa eta 2DEOren bidez (euskarazko ikus-entzunezkoen laborategia), ikus-entzunezkoen sektorera irekitako laguntza ekonomikoa bat aurkezten du. Deialdiaren helburu nagusia ikus-entzunezko proiektuen fase esperimental eta garapena babestea da.

Deialdi honen eta Tabakalerako beste programa batzuen bitartez, hainbat eragilek eta beren proiektuek partekatu dezaketen espazio bat sortu nahi da, izan litezkeen kolaborazioak sustatzeko.



## 2. XEDEA

Laguntzaren Deialdiaren xedea ikus-entzunezkoen sektorea babestea eta jarduketako-ildoak zabaltzea da, ikerketa, garapen eta berrikuntzako (I+G+b) bide berrietan esperimentatzea sustatuz.

Deialdi honen xedea ikus-entzunezkoen proiektuen esperimentazioaren garapena erraztea da.

Deialdi honen helburua proiektuen berrikuntza eta garapena sustatzea da, hurrengo hiru lan ataletan egituratzen delarik:

- A atala: Nazioartekotzea

Proiektuaren garapenerako atzerriko enpresen bidezko laguntzak edo kolaborazioak eskuratzen dituztenak, eta nazioartekotzeko aukera duten proiektuak.

- B atala: Teknologia

Ekoizpen-prozesu, produktu edo zerbitzu bat sortzera eta/edo nabarmen hobetzera bideratutako proiektuak, ikerketa industrial, berrikuntzaren arloko aholkularitza-kontsultoretzak, garapen berritzaile edo esperimentaleko jarduerak, eta horiek hedatzea barne har ditzaketanak.

- C atala: Eduki berritzaileak

Honako faktore hauek aintzat hartzen dituzten edukiei buruzko proiektuak:

- Proiektuaren izaera berritzailea.
- Proiektuaren originaltasuna.
- Formatuaren berrikuntza.
- Proiektuak serie bat ezartzea, edo formatua errepikatzeko aukera egotea.
- Proiektuaren sormen-kalitatea.
- Proiektuaren irisgarritasuna eta eragina.



- Erreferente berriak sortzea ahalbidetzea.
- Estetika berritzaileen aldeko apustua egitea.

Laguntzak publizitate, gardentasun, objektibotasun, berdintasun eta diskriminazio-ezaren printzipioekin bat etorri esleituko dira, norgehiagoka erregimenaren bidez.

### 3. HAUTAGAIK/PARTE-HARTZAILEAK

Deialdian parte hartu ahalko dute zerga-egoitza Europar Batasunean duten pertsona fisiko edo juridiko guztiak.

Halaber, deialdian parte hartu ahalko dute, batera, hainbat pertsona fisiko edo juridikok, haien arteko harremana formalizatzeko betebeharririk gabe.

Ebazpena jakinarazten den momentuan ezinbestekoa izango delarik konstituzioaren formalizazioa.

Hautagai bakoitzak nahi beste proiektu aurkeztu ahal izango ditu, baina eskatzaile bakoitzeko proiektu bakarra aukeratuko da.

Proiektu bakoitzean zein ataletara aurkezten den zehaztu beharko da: a) Nazioartekotzea, b) Teknologia edo c) Eduki berritzaileak.

### 4. BATZORDEA ETA IRIZPIDEAK

CICC/Tabakalerako kideek, hainbat unibertsitatetako ordezkariak eta ikus-entzunezkoen sektoreak egiaztatutako gaikuntza profesionala duten aditu



independenteeek osatutako Batzorde bat eratuko da, aurkeztutako proiektuak baloratzeko.

Hala, Batzordeak aurkeztutako proiektuak baloratu dituzte jarraian adieraziko diren irizpideei jarraikiz, eta txosten bat egingo du, zeinetan proiektu bakoitzaren indarguneak, ahultasunak eta aukerak islatuko baititu. Txosten hori dagokion laguntzaren eskatzaileak soilik ikusi ahalko du, eta laguntzaren memoriari ere gehituko zaio.

Txosten horretan, proiektuen ebaluazioa jasoko da (deialdi honen bidez finantzatzeko esperimentazio eta garapen gisa zein atal aukeratzen den zehaztuta). Halaber, txostenak laguntzen proposamena jasoko du.

Proiektuak baloratzeko, honako **irizpide** hauei jarraituko zaie:

1) **Atal bakoitzeko irizpide espezifikoak:**

A atala: Nazioartekotzea

- Proiektuaren garapenerako atzerriko enpresen bidezko laguntzak edo kolaborazioak lortzea.
- Nazioartekotzeko aukera duten proiektuak.

B atala: Teknologia

- Ekoizpen-prozesu, produktu edo zerbitzu bat sortzera eta/edo nabarmen hobetzera bideratutako proiektuak, ikerketa industrial nahiz berrikuntzaren arloko aholkularitza-kontsultoretzak barne har ditzaketenak.
- Garapen berritzaile edo esperimentaleko jarduerak.
- Aurreko proiektuen hedapena.



C atala: Eduki berritzaileak

- Proiektuaren izaera berritzailea.
- Proiektuaren originaltasuna.
- Formatuaren berrikuntza.
- Proiektuak serie bat ezartzea, edo formatua errepikatzeko aukera egotea.
- Proiektuaren sormen-kalitatea.
- Proiektuaren irisgarritasuna eta eragina.
- Erreferente berriak sortzea ahalbidetzea.
- Erreferenteen aldeko apustua egitea.
- Estetika berritzaileen aldeko apustua egitea.

2) Atal guztietarako irizpide orokorrak:

- 2DEOren lan-ildoei jarraitzea.
- Formatu berriak erabiltzea.
- Metodologia esperimentalak.
- *Mentoring*.
- Laborategian *mentoringa* erabiltzeko aukera.
- Proiektuaren publikoa.
- Proiektuaren idazketa.
- Lan-planaren zehaztasuna.

Epaimahaiak modu honetan puntuatuko ditu jasotako proiektuak.

I. FASEA

Parte hartzaileak ez badu dokumentazio osoa helarazten, ez du prozesuan jarraituko.



2. FASEA (teknikoa) - Gehienez 60 puntu.

Fase honetan ez badira 30 puntu lortzen ez du prozesuan jarraituko.

Atal (gai) bakoitzak 0- 6 puntutaraino eman ahalko dira. (10 atal izanez):

1. Prototipora arteko zatiren bat 2de0 espazioan garatzea
2. 2de0 laborategiko lan lerroak jarraitzea. (Estetika, istorioa, teknologia eta zabalkundea).
3. Formatu berrien erabilera.
4. Metodologia esperimentalak ondo azalduta dagoen.
5. Mentoring-aren erabilpena (sektoreko aditu zein nazioartekoekin)
6. Mentoring 2de0 laborategirako baliagarria (sektorerako)
7. Euskarazkoa izatea prototipoa.
8. Target-a (nori doa zuzendua). Bereziki interesgarri nerabeak.
9. Proiektuaren azalpen maila.
10. Lan planning-aren zehaztasuna

3. FASEA (osotasuna) Gehienez 40 puntu

Atal (gai) bakoitzak 0tik 10 puntutaraino eman ahalko dira. (4 atal izanez)

1. Originaltasuna: Estetika berriak, istorio ona, teknologia edota zabalkundean
2. Berritzailea: Erreferentzia berriak sortzeko baliagarritasuna
3. Esperimentazio maila: I+D+I
4. Proiektuak izan dezakeen zabalkundea

Batzordeak deialdia hutsik deklaratu ahal izango du modalitate batean edo guztietan, aurkeztutako proiektuetako batek ere laguntza hauen bidez finantzatzeko beharrezkoak diren ezaugarriak edo merituak biltzen ez dituela irizten badu.



## 5. ZUZKIDURA ETA EPEAK

2DEOk eskaintzen duena: dirulaguntza zuzen bat, laborategiko baliabide teknikoak, bideratzaileen babesa proiektuaren garapen kontzeptuala egiteko eta inguruko eragileen ekimenak zuzenean ezagutzeko aukera.

2DEOko taldeak proiektuei segimendua egin eta babesa emango die. Proiektua 2DEOren instalazioetan gauzatu ahal izango da, betiere kasu bakoitzaren behar espezifikoa aintzat hartuta.

### Laguntzen zenbatekoa

Laguntzaren zenbateko ekonomiko osoa 115.000 €-koa izango da, eta honela banatuko da atalen arabera:

A atala: 34.500 € (3 proiektu, bakoitza 11.500 €-koa).

B atala: 30.000 € (3 proiektu, bakoitza 10.000 €-koa).

C atala: 55.000 € (5 proiektu, bakoitza 11.100 €-koa).

Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak, betiere deialdi honetan ezarritako epean egiten badira.

Zehazki, alderdi hauei lotutakoak joko dira diruz lagun daitezkeen gastutzat: (i) langileen gastuak; (ii) tresnen eta materialaren kostuak (alokairua); (iii) kontratu bidezko ikerketaren, ezagutza teknikoen, kontsultoretzaren eta antzeko



zerbitzuen kostuak; (iv) gastu orokor osagarriak eta proiektuaren ondoriozko beste gastu batzuk.

Zeharkako zergak ez dira inola ere diruz lagun daitezkeen gastutzat joko berreskuratu edo konpentsatuko direnean, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

Tabakalerak, bidezkoa bada, indarreko araudi fiskalaren arabera dagokion atxikipena gauzatuko du, dagokion zerga-administrazioan sartuta.

### Epeak

Izena emateko epea **2019ko ekainaren 14tik uztailaren 14ko 23:59ak [UTC+2]** arte egongo da zabalik. Deialdiaren ebazpena **2019ko uztailaren 19ean** jakinaraziko da. Hautatuek astebeteko epea izango dute laguntzak onartzeko.

Hautatuek lau hilabete izango dituzte proiektuak gauzatzeko. Proiektuak 2019ko uztailaren 24etik aurrera gauzatuko dira, eta azken memoria 2019ko azaroaren 18a baino lehen aurkeztu beharko da.

2019ko uztailaren 24an, goizeko 11:00etan, harrera-bilera bat egingo zaie laguntzen esleipendunei Tabakalerako 2DEOren instalazioetan. Bertan, taldea, 2DEOren baliabideak eta Tabakalera kultura-zentroaren gainerako baliabideak aurkeztuko zaizkie.

Laguntzak egun hauetan entregatuko dira:

- Laguntzaren % 50 esleipena sinatzeko orduan.
- Gainerakoa 2019ko abenduaren 15ean, 2019ko azaroaren 18rako aurkeztu beharreko memoria entregatu ondoren, eta proiektua gauzatzean izandako benetako gastuak justifikatu ondoren.





Proiektuaren garapenean sortutako gastuen justifikazioak honeko hauek jasoko ditu: 1) gastuen banakako zerrenda, gastu motakako klasifikazio batekin 2) eta gastu bakoitzaren jatorrizko faktura (tiketak ez dira onartuko, laguntzaren hartzailearen izenean.

Gastuen justifikazio osoa, gastu bakoitzaren oinarri ezargarriaren baturak osatuko du.

Laguntzaren hartzailea pertsona fisikoa den kasuetan, eta BEZa kengarria ez dela frogatuko balu, kasu horretan, justifikatu beharreko zenbatekoa fakturaren zenbateko osoa izango da. Kenkari muga hori frogatu ahal izateko, hartzailearen Urteko BEZ Laburpena (390 eredua) eskatuko da.

Gastu horiek justifikatzeko azken eguna 2019ko azaroaren 18a izango da.

Hautatuek diruz lagundutako gastuak behar bezala justifikatu ezean, laguntza gal dezakete eta jasotako zenbatekoak itzuli behar izan ditzakete.

## 6. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetara aurkezten direnek beren gain hartzen dituzte honako konpromiso hauek:

- Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Egoitza fiskala Europar Batasunean izatea.
- Pertsona edo erakunde eskatzaileak laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea galarazten dion administrazio- edo zigor-zehapenik ez edukitzea, ezta horretarako ahalmena kentzen dion lege-debekurik ere.
- Proiektua 2DEOren instalazioetan gauzatu ahal izango da, 2019ko uztailetik aurrera.



- Deialdi honen 5. klausulan ezarritako epeak bete ezean, horretarako justifikaziorik eman gabe, esleitutako laguntzak bertan behera gera daitezke eta esleipendunak jasotako laguntzak itzultzeko betebeharra izan dezake, hala badagokio.
- Tabakalerak laborategian egiten den lana erabili ahal izango du deialdi honen xede den programa, horren edukia eta emaitzak ezagutarazteko eta herritarren esku jartzeko.
- Laborategitik igaro ondoren, proiektuari buruzko memoria bat aurkeztu beharko da 2019ko azaroaren 18an, 12:00tan
- Deialdi honen xede den programan parte hartzeko aukeratzen diren proiektuetatik sortzen diren ikus-entzunezko lanak banatu eta jendaurrean aurkeztean, aipatu egin beharko da programa horretan parte hartu dutela, eta bertan txertatu beharko dira Tabakaleraren eta 2DEO ekimenaren markak, logotipoak eta izen komertzialak (adibidez, kredituetan sartuta).
- 2DEOren gunea erabiltzeko arauak errespetatzea.

Deian jasotako dokumentazio guztia entregatzen ez duten proiektuak ez dira kontuan hartuko eta ez dute prozesuan parte hartuko.

## 7. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Deialdiaren oinarriak Tabakaleraren webgunean kontsulta daitezke. Izena emateko online formularioa bete behar da, eta txosten bat erantsi, honako informazio honekin:

- Harremanetarako datuak.
- NANaren, IFKren edo horien baliokide diren dokumentuen fotokopia.
- Zerga-egoitza egiaztatzen duen ziurtagiria edo, halakorik ezean, hori egiaztatzen duen dokumentazioa.



- Proiektu osoaren azalpena, gainera (gehienez 500 hitz).
- Laguntzaren xede izango den proiektuko zatiaren azalpena (gehienez 1.000 hitz).
- Aurrekontu xehatua.
- Proiektua gauzatzeko egutegia.
- Curriculum vitae(k), webgunea edo aurreko lanak ikusteko sarbidea.
- Proiektuko arduradunaren edo taldearen biografia eta argazkia.

Laguntza jaso ahal izateko, dagokion zerga-administrazioan Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta eman izana egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu behar zaio Tabakalerari.

Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango da.

## 8. JABETZA INTELEKTUALA

Eskatzaile guztiek bermatu beharko dute deialdi honen esparruan aurkezten dituzten proiektuak, dokumentuak eta ikus-entzunezko materialak, edo – hautatuak badira– deialdian parte hartzean sortzen dituzten gainerako guztiak, originalak direla eta ez dutela hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubiderik urratzen.

Hautatutako eskatzaileek dokumentu eta ikus-entzunezko material horiek (hala badagokio, proiektuen emaitza gisa sortzen den ikus-entzunezko lana barne) ustiatzeko lizentzia ez-esklusiboa emango diote Tabakalerari. Lizentzia hori doakoa eta besterenezina izango da, legeak ezarritako iraupena izango du eta munduko lurralde-esparru osoan izango da aplikagarria. Hori horrela, Tabakalerak ahalmena izango du dokumentu edo material horiek osorik edo partzialki eraldatzeko, erreproduzitzeko eta jendaurrean jartzeko, egun ezagutzen den edozein euskarri ukigarri edo ukiezin erabiliz, betiere xede



honekin bada: programa eta bere edukiak eta emaitzak ezagutaraztea eta herritarren esku jartzea, doan.

Hori guztia albo batera utzi gabe dokumentu eta ikus-entzunezko material horiei dagozkien egile-eskubide moralak eta jabetza intelektualeko ondare-dukien eskubide guztien titulartasuna; horiek dokumentuak eta materialak sortu dituzten parte-hartzaileenak izaten jarraituko dute.

Edonola ere, eskatzaile bakoitzak bere gain hartuko du, Tabakaleraren aurrean, jabetza intelektualaren harira hirugarrenek jar ditzaketen erreklamazioen ardura, hauei dagokienez: (i) deialdi honen esparruan aurkeztutako proiektuak, dokumentuak eta ikus-entzunezko materialak; eta (ii) hautatuak izanez gero, deialdian parte hartzean sortu dituzten dokumentuak eta ikus-entzunezko materialak. Kontzeptu horiengatik sor daitezkeen erreklamazioek Tabakalerari kalte-galerak eraginez gero, eskatzaileak dagokion kalte-ordaina eman beharko dio.

Horrez gain, Tabakaleraren markak, logotipoak eta/edo izen komertziala erabil ahal izan dezaten (10. klausularekin bat etorriz), erakundeak elementu horiek ustiatzeko dagokion lizentzia ez-esklusiboa emango die hautatuei, doakoa eta besterenezina, eta elementuok soil-soilik erabili ahal izango dituzte beren proiektuetatik sortzen diren ikus-entzunezko lanak banatzeko eta jendaurrean aurkezteko.

## 9. DATUAK BABESTEIA

Deialdi honetan emandako datu pertsonalak Tabakaleraren fitxategi batean sartuko dira, deialdi hau, deialdiaren administrazio-kudeaketako jardunak, fakturazioa eta/edo dokumentazioa kudeatu ahal izateko, eta parte-hartzaileek onartu egin behar dute beren datuak fitxategi horretan sartzea. Horri dagokionez, helbidea honako hau izango da: Tabakalera, Andere zigarrogileak, 1, Donostia. Parte-hartzaileak bere laguntzailearen baten datu pertsonalak ematen



baditu, datuak Tabakalerari xede bererako jakinarazteko haren baimena izan beharko du.

Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezeztatzeko eta datuei aurka egiteko eskubideak posta elektronikoko bidez baliatu behar dira; mezu elektronikoa [2deo@tabakalera.eu](mailto:2deo@tabakalera.eu) bidali, gaia honako hau duela: “2deo deialdi publikoa” mezuarekin batera datuen titularrak sinatutako gutun bat ere aurkeztu beharko da, eta jakinarazpenak jasotzeko helbide bat adierazteaz gain, NANaren edo antzeko beste dokumentu baten kopia ere bidali behar da.

## **10. PARTE HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK**

Parte-hartzaileek Tabakalerako gunetan hartutako irudietan (argazkiak, bideoak, eta abar) ager daitezkeela onartuko dute, gero informazioa emateko edo sustapenerako erabiltzearen; era berean, erabilera hori baimenduko dute.

Hori guztia ohorerako eskubidearen aurkako erabilera edo aplikazio guztiak alde batera utzita, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan aurreikusitako moduan. Eremu horretakoa ez den beste edozein erabilera baimen honetatik kanpo geratzen da.

## **II. OINARRIAK ONARTZEA**

Deialdian parte hartzeak deialdiaren oinarri hauek onartzea dakar.

Info+: [2deo@tabakalera.eu](mailto:2deo@tabakalera.eu)

[www.tabakalera.eu](http://www.tabakalera.eu)